



HERNANIKO EURONET 50/50



2. HIRUHILEKOAN ENERGIAREN JARRAIPEN-LANAK BURUTU DITUGU

Aurreko hiruhilekoan Euronet 50/50 proiektua berriz ere martxan, plangintza egin, Energia-taldea berrabiarazi eta prestakuntza zein sentsibilizazio-saio ezberdinak burutu ondoren, Gabonak igarotakoan hurrengo faseari ekin genion: Elizabito ikastolako **energia-ibilbidea antolatzea eta aurrera eramatea.**

Fase horretan, **energia-taldearen kide diren ordezkariak gain, gela guztietako ikasleek parte hartu zuten eta baita irakasleek ere.** Lanketa honen bidez, eragile ezberdinek eskolako eraikinak gainbegiratu zituzten energiaren kudeaketa egoki baten ikuspuntutik. Ildo honetan, gela guztietako tenperaturak neurtu zituzten eta gomendatzen diren erositasun termikoko tenperaturekin bat datozen edo ez egiaztatzeak aukera izan zuten. Lan guztiak garatzeko orduan ikasleek tresna ezberdinak erabili zituzten; hala nola: termometroak eta datuen bilketarako zein aurrezpenaren kalkulurako jarraipen-orriak.

Aurrekoaz gain, energiaren erabilerrari buruzko ohitura onak bultzatzeko asmoz, **ikasleek proposamen zehatzak idazteko aukera izan dute eta horiek eskolako eragile guztien eskura daude, Txoko Berdean** hain zuzen ere.

Aipatu behar da Elizabito Ikastolaz gain, pauso horiek eman dituztela ere Euronet 50/50 egitasmoan parte hartzen duten Urumea Ikastolak eta Txirrita eskola txikiak.



PATIOKO EGOERA HOBETZEKO PAUSOAK EMAN DITUGU

Patioa trukun mantentzea guztion ardura dela kontuan hartuz, 2. hiruhilekoan zehar eremu hau jolaserako eta lagunekin lasai egoteko gune egokia eta atsegina izateko hainbat jardura burutu ditugu:

- Ohitura onak gogora ekartzea: hamaiketakoari eta askariari lotuta sortzen ditugun hondakinak zati ezberdinak behar den gaikako bilketarako zaborrontzian uztea, lurrera inongo hondakinik ez botatzea, besteeiko errespetua, patioan dauden elementu ezberdinak zaintzea, eta abar.
- Irakasleek jarritako kutxan astero ikasleei planteatzen genizkien frogak edo eronkak aurrera eramatea, ikasle guztien artean jarrera arduratsuak bultzatzeko.
- Eskolako Agenda 21 eta Euronet 50/50 programei lotuta sortu genuen "Txoko Berdea" dinamizatzea: berriak jartzea, proposamen zehatzak idaztea, aurreko urteetan gure gain hartutako konpromisoak gogora ekartzea, ...



HURRENGO URRATSAK: EMAITZEN EBALUAZIOA, EKINTZA-PLANA ETA KONPONBIDEAK

Pairatzen ari garen osasun-egoera igaro arte ezingo ditugu Euronet 50/50 proiektuaren hurrengo urratsak aurrerakusita genuen moduan aurrera eramane. Hala ere, Udalak etxetik ere egin ditzakegun energiari lotutako hainbat joko eta ariketa jarriko ditu gure eskura datozen egunetan.

Edonola ere, egokia iruditu zaigu proiektuaren hurrengo urratsen berri ematea:

- 2 astetan zehar eraikinaren tenperatura datuak hartzea, eraikinaren epe luzerako tenperatura profila egiteko. Ondoren, energiaren ebaluazioaren lanketa egingo da. Hau da, eraikinaren erabilzaileen (ikasleek, irakasleek, gainerako langileek) jokaerak eraikinaren energiaren kontsumoan nola eragiten duten aztertzea.
- Ikaslearen ekintza-plana diseinatzea eta konponbideak proposatzea. Energia-taldeko kideek une horretara arteko emaitzak aztertzen dituzte eta hobetu beharreko arloak antzematen dituzte. Hobetu beharreko arlo horietarako helburuek eta ekintza zehatzek ekintza-planaren eduki nagusia osatzen dute. Interesgarria izango da, halaber, aurreko ikasturtean prestatutako ekintza-planaren helburuen eta ekintzen betetze-maila zein izan den aztertzea.



ETXEAN ENERJIA AURREZTEKO BALIABIDEAK

Hona hemen euskarazko nahiz gaztelerezko hainbat web gune erabilgarri, argindarra eta berokuntza arduraz erabiltzen ikasteko gomendioekin:

Euskarazko baliabideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gipuzkoa Argitu" programaren baitan sortutako ["Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu Gabe"](#).
- Energiaren Euskal Erakundeak diseinatutako ["Energia etxean"](#) izeneko gida.
- HABEX prestatutako energiari buruzko [Dokutakako fitxa](#) energia-aholkuekin.

Gaztelerezko baliabideak:

- ["¿Puedes ahorrar energía sin perder confort?"](#) gaztelerezko gida. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ["Guía para el ahorro de energía en el hogar"](#) diseinatu por el Ente Vasco de la Energía.
- Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía erakundeak diseinatutako [gida birtualja](#).